

Angula edo txitxardin arrantzan aldaketa batzu Aturri behere aldean

(Changes in the fishing of elvers in the lower Adur)

Pagola, Manex
Larrea. F-64990 Urcuit/Urqueta

BIBLID [1137-439X (2003), 25; 411-415]

Jaso: 18.11.02
Onartu: 31.10.03

Aski ohargarri dela nola azken hogeit bat urte hautan hiruetan hogeit ta hamar bat ofizioko arrantzalek Aturri Behere aldeko ibaia beretu duten –bereziki Ahurtiko zubiraino– angula edo txitxardina biltzeko, lehenago hor milako bat oinezko arrantzale zabiltzalarik aski lasaitasunekin. Txitxardinaren oraiko prezio urrea ere tarteko, egoera berri hau guziaz ez da tirabira eta ondorio bitxirik gabe garatuko.

Giltza-Hitzak: Aturri Behere. Angula. Aldaketa. Ofizioko arrantzaleak. Tira bira.

Llama la atención que en los últimos veinte años unos setenta pescadores profesionales se han apoderado de este tramo del río Adur –principalmente hasta el puente de Ahurti– con el fin de pescar angulas, cuando antes en el mismo lugar faenaban con relativa tranquilidad unos pocos pescadores de a pie. Debido al precio desorbitado actual de la angula, esta nueva situación no se producirá sin tensiones ni curiosas consecuencias.

Palabras Clave: Bajo Adur. Angula. Cambio. Pescadores profesionales. Tensiones.

Il est surprenant qu'au cours des vingt dernières années environ soixante dix pêcheurs professionnels se soient emparés de cette partie de la rivière Adour –principalement jusqu'au pont de Ahurti– afin de pêcher des pibales, alors qu'avant, au même endroit, un millier de pêcheurs amateurs pêchaient relativement tranquillement. A cause du prix actuel exorbitant de la pibale, cette nouvelle situation ne se produira pas sans tension ni curieuses conséquences.

Mots Clés: Bas Adour. Pibale. Changement. Pêcheurs professionnels. Tensions.

Ez ginakike, zuzen errateko, noiztik egiten den Aturri behealaldean duela aski aspaldi, lehenbiziko aldiz ikusi genuen arrantza mota berezia: Angula edo txitxardinarena, aingira kume xuhail eta kozkor hau Baionan eta Landes tako aldean *piballe* izenez ere deitzen ohi dena. Eta frantsesez berriz *civelle*, Garona, Loire, Vilaine delako ibaiak frantses Estaduan, Britainian barna, Atlantiko itsasorat heltzen diren bazterretan.

Duela hogoita hamabost bat urte, neguko arats batez, Aturri ibaiaren eskuin aldearen hegiz hegi Baionatik etxeratzean, hona nun, Mugerre eta Lehuntze zolan, Lurdeko gau beila baten gisarat agertzen zitzaudan ibai horren zati handi bat mila xirioek dirdirutzen balute bezala. Ez baitzen ordu haietan oraiko eletrika argirik bide bazterretan...

Beraz zinezko ikusgarria neretzat! Zer izaten ahal ziren bada argi ahul horiek oro ibaiaren bazterrean eta gainean? Eta ibai ezpondetarik haga luzeak urerat apalduz zagotzin mamu beltzen gisako jende horiek guziak? Denak gizonak segurazki. Bainan denak zoin ixilik!

Neure beribila berehala ibai bazterean geldiarazi eta beste hanbaten artean, nere begi eta beharriak etziren aski gertakari eta margo bizi horren ongi miresteko. Hain zen dena distiratsu eta misterioitsu, ixiltasun bitxi batean hartua, Aturriko urek hanbat eta hanbat barku dantzaziz, olatu ttipi batzuen hotsa baizik etzela nere beharrietaraten gau ilun horretan.

Biharamunean, Urketako taberna batean nere ohizko bisita egitean, galde bat baizik ez nuen egiteko. Zer ziren bada atzo gauean arrantzari horiek guziak Aturri ibaiaren bazterrean eta gainean? "Pibalariak!" zautan ihardetsi ostalariak. "Segur diru alde ederrik ateratzen baitute arrantza hortarik! Arras elikagai preziatua baita etxerako bezala berdin kanpoan saltzeko, Baionako ostatu handi hoietan!"

Denbora haietan angula kiloa berrogoita hamar liberetan bazoan (hamar, hamabi mila pezetako hori) merkatu beltzean eta hain segur gehixagotan merkatu idekian. Diru edo sos idorra bekan zen ordu haietan oraino, jendea bankuetako prestamuetan ez hanbat ohitua.

Hortik harat berehala ulertu nuen beren lanpara ttipiekin gaeuz lan hortan ari zirenak etzirela bakarrik plazerrez edo atseginez ari. Aski laster jakin ere bainuen denbora nahasietan, haizetsu eta euritsuetan zela oparoenik edo emankorrenik pibalaren edo angularen arrantza hori. Eta berdin oren luzeak egon behar zela euriak euriari, berdin eguraldi hotzaren erdian lanaren egiteko. Osasan oneko jendearentzat beraz arrantza argistatu hori. Eta argi bakar hori beti beharrezko barku bakotxarentzat, angulak orduan baitira omen hobekienik biltzen barkuaren bi aldetarat luzatzen diren hagen puntan doatzin 120 zentimetroko bi bahe handien barnetaratzat, hauk pollikiño ur gaina ikertzen edo arakatzen dutela arrai kozkor urrea biltzeko...

Bainan zer aldaketa orduko ikusgarri hartarik gaurkorat! Gaur egun, hogoita hamar, hogoita hamabost urte geroago, Aturri behere aldea beti hor dago

segur eta *angula* edo *pibala*, *txitxardin* arrantzaleak ere bai, bainan zenbat eta zenbatez ez dira hauk gutiagotu! Zer gertatu da bada?

Komunikazio labur honetan laburki eta bereziki aipatu nahi duguna da nolako aldaketa izan den bet betan bezala Aturri ibaiaren beheko gune hortan angularen inguruko arrantzan, iduri Aturri ibaia angula sardaz agortu dela edo ohizko arrantzariak etsitu. Aldaketa horren lekuko eta eragilekin doi bat hitzeginez tokian bereko *oinezko arrantzale* ohi batzuekin eta bereziki, Xabier Cuende jaun ikerlariak ezagutzerat eman Landes tako aldean bizi den Mahaut jaunarekin, jakinen dut teknikoki eta sozialki zer nolako berrantolaketan izan den hor, hain xuxen txitxardinaren arrantzan, azken hamar bat urtetan.

Dudarik ez da, hoin leku guttitan (Angeluko Barratik Ahurtiko zubirarte 17 Km) eta denboraldi laburrean ere gertatu aldaketa honek erdiz erdi hunkitzen du antropologoaren begirada edo behakoa, bat bestearen aldean edo aurka jartzen dituela giza strateak, botere berri baten antolaketa eta ekonomiaren eta merkatuaren bideek, etekinen legea eta konkurrentzia edo lehiaren bortitza tarteko, gizartean sortzen dituzten egoera desorekatuak. Lehenago eremu horretan ala *ofizioko arrantzaleak* eta aisialdiz hor gaindi zabiltzanak (*oinezko arrantzaleak*, gutiz gehienak) milako bat kondatzen ahal balinbaziren, orain, bakarrik hiruetan hogoi ta hamar bat ofizioko arrantzale bakarrik Barratik Ahurtiko zubiraino, eta angularen prezioa urrearena bezain gora joana edo igoa!

Jada aipatu nere bitartekari nagusi edo solaskide berezia izan den Mahaut jaunak hitza xuxen eta nasai, hiru lan pintzeladez bezala margotzen digu Aturri aldeko angula arrantzaren egoera.

“Badakizu, ofizio honetan ere dena aldatuz doa. Pentsaezazu 1985 an oraino aisialdiz hor ibilki ziren arrantzariak milako bat bazirela Aturriren bi aldeetan, Landes tako aldetarik eta euskal ibai bazterretarik, eta gu ofizioko arrantzaleak hain guti, ehunetarat ez heltzen beharbada. Bainan gu, ofiziokoak, bakarrak izanki arrantzako legeak ongi betetzen gintuenak eta ditugunak, dela arrantzako kuota karten urtero berritzea, zergen ordaintzea, asuratzan edo seguroen hartzea, angularen hazkundera errespetatzea, ingurumenaz egin ahala arta hartzea eta abar...Funtsean gauza berdina ikusiko liteke Frantziako estatu mendebaldeko kosta bazter guzian, Garona, Loire, Vilaine ibai aldetan gora, hemen gaindi Aturri behere gainean bezala pibala edo angula arrantzan dabilzan guzien artean...

...

Heldu da arrantza hortan ere bi motako arrantzaleak erreki kausitzen direla: gu bezala *ofiziokoak* eta besteak *oinezko arrantzaleak* deituak, ibai bazterretik edo ertzetik arrantzan ari direnak barkurik gabe, bakarrik berrogoita hamar zentimetroko bahe batzuekin, beren aisialdian noiz nahi ibaiaren arakatzen dabilzan hoiek arrantza profesionaleko legerik bete gabe. Hori etzen zuzen”.

Angularen arrantza Frantses Estaduko legeaz hazilaren 1etik martxoaren 31 a arte idekia denaz geroz, eguberri edo gabonak inguruan edo urte zahar

eta berri artean, Aturri gainean etzen, naski, toki batzuetan entzun dugunez, ofizioko arrantzaleentzat hain erretxa toki bat bera aurkitzea..Eta angularen prezioa urtez urte beti gorago, guk lehenago ezagutu dugun 1.200 peseta edo 12 euro kiloko orain 30.000 pesetetarik edo 200 eurotarik gora joana...

Gaur egun, arrantza hortako legea zorroztu delakoan, ofizioko arrantzaleen lana zaintzeko eta aisialdiak betetzeko arrantzan dabiltzan hoiek nekez ofizioko legeak oro betetzen ahal dituztelakoan, Aturriko arrantza zorionez ofiziokoen gauza bilakatu da, angularen arrantzatik beretik urteko arrantza osoaren etekinen % 60 a inguru ateratzen dutela beharbada.

Eta Mahaut jaunak jarraitzen du erranez:

“Gure ofizioa gaur egun aski ongi zaindua eta antolatua da, hor dugula Laborantza eta Itsasoko Ministeritzaren legedia gaurkotua bai eta berdin ingurumenak argitaratzen duena, ez balinbada ere beti hain erretxa bi ministeritza hoiene arteko lotura argia egitea, hain baitira korapilatsuak gure ofizioko sail batzu”.

Mahaut jaunak eman argibide hoietan eta beste *oinezko arrantzale* batzuek eman eletan gogoan genituen azken urtetan hain biziak izan gertakari batzu. Hala nola Landes-tan, Capbretoneko portuan eta berdin Donibane Lohizunekoan berean, haizkorek eta suak arrantza ontzi batzuetan egin suntsiketak. Hain xuxen 1999 eko hazilan gertatuak. (Nehoz ez dela beharbada hanbat argitu ekintza horiek eginarazi zituztenak nortsu izan ziren). Baina guretzat argi dena tirabira handiak hazten direla gaur egun pibalaren edo txitxardinaren inguruko arrantza horretan.

Alabainan arrantza horren ezaugarri berri eta ohargarrietarik ditugu orain:

- Txitxardinaren arrantzako eremua ongi neurtua dela
- Txitxardinaren arrantzaleak berak kopuru neurtuan direla
- Aisialdiz ari diren oinezko arrantzaleak itzali bezala direla
- Txitxardinaren merkatua zinez berrantolatua bezala dugula arrai urre horrek merkatuan Gipuzko, Bizkaia alderat eta berdin Txinarrat edo Japoniarat buruz hartua duen prezio harrigarria gatik “tokian tokiko ohizko txitxardin jalek berek nahiago baitute arrai horretarik etxean jateko orde merkatuarekin ereman!”

Gauza argia beraz, aldaketa nagusi hau guziek txitxardinaren merkatua (kapitalista modukoa segur) areagotzen eta pizkortzen doan une berdinean kokatzen direla. Bestalde, txitxardinaren merkatua zaindua edo kontrolatua den neurri berdinean txitxardin arrantzaleen lana ere kontrolatuago edo zainduago gertatzen da gero eta gehiago.

Errexki ikusten da beraz merkatuaren eta horraratu produktu arraro horren erakarleen artean geroz eta gehiago gertatzen ari den lotura hertsia

edo erlazio tinkia. Hemen ere lanaren zatiketa edo dibisioaren konzeptuak edo izanak (eta beraz lanaren espezialisatzeak edo berezitzeak) aldaketa handiak dakartza beraz, dudarik gabe, ibai-eskualde bateko bizi orokor berezian ere. Eta angularen edo txitxardin ofizioaren berezitze horrek dakarren etekina noren alde doan, bai eta nolako bazterketak edo desagerpenak eragiten dituen ere, hau guzia beste azterketa sail bat izaten ahal da antropologo-arentzat. Alabainan ibai ertzeko edo bazterreko ingurumenaren izaera bezanbat hor jokutzen baita ere horgo gizon eta emazteena, arrantzaren munduaren zati on batena bera, egiazki, ohiduraz, hain berena duten hoi guziena. Etxerako pobetxuz ere ibai gune hoietan hain aspalditik eta lasaiki “betiko txitxardin arrantzan” ari ziren hoi guziena. Orain ikusten den bezala, jadanik ordukotz, hain produktu onak janez beren etxeko sukaldeko mahainean...

Komunikazio honen abiatzean edo hasieran aipatu dutan duela hogoi ta hamar urte entzun Urketako ostalertsaren solasa: “Segur diru alde ederrik ateratzen dutela angularen arrantza hortarik!” etzen segur gaizki errana bainan zinez ongi edo ondo ikusia.

Bainan zer da ofizioko arrantzaleek berek ez dutela omen gehiago beren arrantzatik bildu arrai kume preziatu hortarik beren etxean ere jaten....hain baita berezia, “urreaken pareko” merkatuan saltzeko!

Aro berri hauen trufaren edo burlaren gainerik dugunez ote nunbait, Aturri Behere aldean ere, beste soinua edo musika bat ez hain airosa denentzat?

Edo pikoaren gainean zauria?